ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko ekainaren 21a, ostirala • 72 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2019ko kirolaren arloko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 461453

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans.

Lehenengoa. Onuradunak

Sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren arloko elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik, legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez udalerrian erroldatuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Udalaren eskumeneko jarduera eta zerbitzuen osagarri edo ordezko diren kirol-jarduerak egiten laguntzea da diru-laguntza honen helburua.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 23.000 eurokoa da.

Erakunde bakoitzak eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da kontuan hartutako aurrekontuaren ehuneko 50 baino handiagoa izan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

Alkate-Udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.06.21 05:33:27 Z